

LEZOKO KAIKAK ERAGINDAKO KUTSADURA


Orbegozo fundizioa itxi ezkerotik Lezoko airearen kalitatea asko hobetu dela bistan dago, baina oraindik geratzen dira gure inguruan zenbait aktibitate kutsakor. Handienak bezala Iberdrolako zentral termikoa eta kaiako karga eta deskargak aipatu ditzakegu. Gaurkoan azken honetaz jardungo gara.

KAIAREN ERABILPENA:

Lezo 1 eta Lezo 2 kaiei "instalazio berezirik behar ez duten granelak" karga eta deskargatzeko erabilpena ematen dio Pasaiaiko Portuaren agintaritzak. Erabilpen hau dela medio, Lezoko kaia nahiz errepideetatik material ugari bezain zikinak igarotzen ari dira.

Horien artean txatarra ezberdinak, txatarra kiskurra, ongarri kimikoak (fosfatoak, potasak, ...), kaolin, ferrosilikicio, ferromanganeso, pirita, magnesita, espatofluor, clinker, portland eta mineral mota ugari.

Urtean zehar milaka tona garraiatzen dituzte itsasontzi eta kamioietan, hauen hautsak airean eta inguruan sakabanatuz eta bideetan zehar materiala galduz. Honetaz gain zarata edo kutsadura akustikoa ere jasan beharra daukagu.



*Ez da elurra,
kaolin baizik
1883ko
Abendua*

AIREAREN KUTSADURA:

Material solido batetatik, ekintza mekaniko baten bidez sortzen diren partikulak airean nahasturik daudenean HAUTSA deitzen diogu. Partikula hauek bere konposaketa kimiko eta tamainaren arabera eragin ezberdinak sortzen dituzte baina orokorrean eragin berdintsu hauek sortzen dituzte:

— **Ikuspenaren gutxitzea**, argia jan edo sakabanatu.

— **Gizakien osasunean**: partikulak gizakien arnasa-sisteman sartzen dira, eta partikulen tamainaren arabera maila ezberdinetara iristen dira. Partikula handiak, arnasaren goi zatian geratzen dira (sudurrean, eztarrian,...); txikiagoak bronkioetara iristen dira, eta txiki txikiak albeoloetara iristen dira. Azken hauen garbiketa zailagoa da eta batzu odol barrura pasatzen dira.

Partikulak kaltegarriak dira, alde batetatik, toxikoak izan daitezkeelako, eta, bestetik, atmosferako gas toxiko batzuk bereganatzen dituztelako. Materia toxiko hauek kalte handia egin dezakete arnasa-sisteman.



Ez da behelainoa, hautsa da. Maiatzak 5

— **Landareetan**:

Hautsa landareen hosto gainean geratzen denean landarea ito dezake. Landareen arnasketan sartzen dira, kasurik okerreanean klorofila suntsituz eta landarea hil eraziz.

Normalki kalteak hostoetan eta hazkuntza abiaduran antzeman ditzazkegu. Landareak jaten dituguentzat ere kaltegarria izango da.

— **Zikinkeria**: Kutsadura mota honen beste ondorioa dugu. Hautsa lurreratzen dijoan neurrian inguruak estaltzen ditu: kaleak, etxeak, autoak, materialeak (metalak, pinturak, tintak, arropak,...) erreakzio degradatzaileak pairatzen dituzte, erabiltzeko bizitza laburtuz eta mantendu kostoak gehituz.

ZARATA KUTSADURA:

Karga deskarga lanetan zarata handia sortzen dute. Haundiena txatarra deskargatu eta mugitzerakoan. Honetaz gain gruak, kamioiak, itsasontzien motorrak, trenak,... zarata emisio iturriak dira. Kaia etxeetatik hain gertu egonik zenbait bizilagunek gauez ere ondorioak jasan behar dituzte.

93ko Uztailan Gipuzkoako Foru Aldundiak zarata neurtzeko egindako azterketan honako datoak azaltzen zaizkigu. Neurketak Lezoko etxebizitza batean eginak dira:

Egunez 69,1 dezibelio (dBA)

Gauez 61,7 dezibelio (dBA).

Esan dezagun eguneko zarataren goi maila jasangarria 65 dBA-tan jarria dagoela eta gauez berriz 55 dBA. Hau da egunero eta gauero zarata maila jasangarria gainditu egiten da. Gainera askotan 100 dBAen gainetik ere pasatzen da.

ERREPIDEETAN ARRISKUA:

Portutik ALGEPOSA enpresara material ugari garraiatzen dituzte kamioien bitartez, horretarako herria zeharkatuz. Kamioi trafiko handia egoteazgain, zenbait material bidean galtzen dute eta ondorioz istripu harriskuak sortu. Galdutakoak bide ertzak kutsatzen ditu eta askotan urarekin batera erreketara isurtzen da.

HAUTSAREN KUTSADURA NABARMENENAK:

- * 93ko Abenduaren 21 eta 22. KAOLIN (hauts zuria), IBERIAN OCEAM ontzia.
- * 94ko Maiatzak 5ean hauts grisa.
- * 94ko Ekainak 20ean hauts marroia, SAVASTAR ontzia.
- * 94ko Ekainak 30ean hauts zuria.

EGINDAKO SALAKETAK:

- * 93ko Abenduan. Udala eta 178 biztanleren salaketa (Pasaiaiko Portuaren Agintaritzak gehiago ez zela horrelakorik gertatuko agindu zuen).
- * 94koak:
 - Antxo eta Buenabistako biztanleak.
 - Pasaiaiko Portuko "seguritate eta higieneko" komitea.
 - Lezoko Eskalada Taldeak.
 - Lezoko 200 biztanlek aurkeztutakoa.

LEZOKO EKOLOGI TALDEA